

**FARMAZIA FAKULTATEKO IKASLEEN ORDEZKARIAK AUKERATZEKO  
PROTOKOLOA  
(Fakultate Batzarrak 2017ko ekainaren 21eko bileran onartua)**

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak UPV/EHUko Ikasleen Arautegia (EHAA 16/12/22) onartu zuen 2016ko azaroaren 3ko bileran. Agiri horretan, taldeko eta mailako ordezkarien irudiak arautzen dira, bai haien zereginei dagokienez, baita haiek aukeratzeko prozedurari dagokionez ere.

Ikasleen Arautegia oinarritzat hartuz, eta beste araudi akademiko batzuk gogoan izanez, Farmazia Fakultateak honako Protokolo hau onartu du, batetik, gure Ikastegiko ikasleen ordezkariak aukeratzeko bidea errazteko, eta, bestetik, ordezkarien zereginen berri emateko.

**1. artikulua. Ordezkarien eskubideak**

Taldeko eta mailako ordezkariak honako eskubide hauek dituzte:

- 1.-Ordezkaritzaren eginkizuna askatasunez betetzea.
- 2.- Adierazteko askatasuna, legezko arauak eta pertsona eta Erakundearekiko errespetua izanik horren muga bakarrak.
- 3.- Ikasleei eragiten dieten gaiei buruzko informazio zehatza eta zuzena jasotzea.

**2. artikulua. Ordezkarien erantzukizunak**

Ordezkatzen dituzten pertsonen eta UPV/EHUri dagokienez, taldeko eta mailako ordezkariak honako erantzukizun hauek izango dituzte:

- 1.- Taldeko ordezkariak ikasleen eta mailako ordezkariaren arteko berezko solaskideak dira; izan ere, haien ikasgelakideak ordezkatuko dituzte mailako ordezkariaren aurrean.
- 2.- Taldeko ordezkariak ikasgelan sortutako mezu, eskaera eta kexak mailako ordezkariari jakinaraziko dizkiote.
- 3.- Mailako ordezkariak taldeko ordezkarien eta Fakultateko Ikasle Kontseiluaren arteko berezko solaskideak dira. Fakultateko Ikasle Kontseilua ezin izan bada eratu, ordezkariak ordezkatzeko dituen ikasleen solaskide gisa jarduteko aukera izango du Dekanotzaren aurrean.

- 4.- Ordezkariek deitzen zaien bileretara joango dira, eta ordezkatzen duten taldearen kritikak, ekimenak, interesak eta proposamenak defendatuko dituzte UPV/EHUko gobernu-organoen aurrean, ikasle orok UPV/EHUko arauen arabera horiek zuzenean helarazteko duen eskubideari kalterik egin gabe.
- 5.- Eman zaizkien lanak eta erantzukizunak eraginkortasunez eta arduraz beteko dituzte ordezkariek.
- 6.- Ordezkariek kargua izateagatik jasotako informazioa zuzen erabiliko dute, horren konfidentziasuna errespetatuz, izaera horrekin eman bazaio.
- 7.- UPV/EHUren eskubideak eta ondasunak babestu, sustatu eta defendatuko dituzte ordezkariek.
- 8.- Beren egitekoak edo eskubideak betetzeko utzitako lokalak, materiala, dokumentuak eta gainerako ondasunak zaindu eta zuzen erabiliko dituzte ordezkariek.
- 9.- Ordezkatzen dituzten kideei parte hartzen duten kide anitzeko organoen jarduerak eta erabakiak jakinaraziko dizkiete ordezkariek, baita beren jarduerak ere. Informatzeko betebeharrak behar besteko erreserbaz eta diskrezioz beteko dute, datuak babesteari buruz dagoen araudiari errespetua galdu gabe. Betebehar hori ez betetzeak dagozkion erantzukizunak eragingo ditu.

### **3. artikulua. Ordezkarizatea**

- 1.- Ordezkariz izan daiteke Farmazia Fakultatean irakasten den edozein gradutan matrikulatutako ikasle oro.
- 2.- Ikasle bakoitza oinarrizko eta nahitaezko irakasgai gehien matrikulaturik dituen taldean soilik izan daiteke ordezkarirako hautagai, eta talde horretan bakarrik bozkatu ahal izango du.
- 3.- Ikasleek konfiantza kenduko ahal diote ordezkarizari. Horretarako hautabidezko hautagaitza aurkeztuko dute eta, gutxien dela, dagozkion maila eta taldean matrikulatutako ikasleen bi herenen botoa lortu behar dute.
- 4.- Taldeko ordezkariz izateko aukeratuak izan diren pertsonen hautatuko dituzte mailako ordezkariz, Dekanotzak berariaz antolaturiko bilera batean.
- 5.- UPV/EHUko Hauteskunde Arautegi Orokorrekin bat etorriz, ordezkariz urtero hautatuko dira.

#### **4. artikulua. Hauteskunde-deialdia**

- 1.- Hauteskunde-prozesua abiarazteko, Dekanotzak hauteskunde-egutegi bat argitaratuko du ikasturte bakoitzeko lehenengo eskola-astean.
- 2.- Mailako koordinatzaileak (edo, haiek ez badaude, titulazioko koordinatzaileak) Fakultateko ikastaldeein egiten dieten aurkezpen-bisitaz baliatuko dira hauteskunde-prozesuaren berri emateko eta ikasleek izan ditzaketan zalantzak argitzeko. Bisita hori ikasturteko lehenengo eskola-astean egingo da.
- 3.- Ikastalde bakoitzaren ordezkaria hautatuko da maila eta talde bakoitzean matrikulaziorik handiena duen irakasgaiari, hautazko irakasgaiak bazter utzita. Dekanotzak jakinaraziko die mailako koordinatzaileei eta eragindako irakasleei zein irakasgaitan hautatuko diren ordezkariak.
- 4.- Fakultateko Dekanotzak ikasleen errolda argitaratuko du, ikastaldeka banaturik, ikasgeletako oholetan; erroldan, ordezkariak aukeratzeko prozesuan hautesle eta hautagarri izateko eskubidea duten ikasleak egongo dira, beti ere datuak babesteko legediak ezarritakoa betez.
- 5.-Ikasleren bat ez balego hautaketa egingo den irakasgaitan matrikulatutako ikasleen zerrenda batean ere, Dekanotzari eskatu ahal izango dio zerrenda horietako batean sartzeko, baldin eta bozketa-eguna baino bi egun lehenago eskatzen badu.

#### **5. artikulua. Hautagaitzak**

- 1.- Hautagaitzak banakakoak izango dira, eta Dekanotzan idatziz aurkeztuko dira ikasturteko bigarren eskola-astean.
- 2.- Hautagaitzan datu hauek emango dira: izen-abizenak, NAN zenbakia, titulazioa, maila eta taldea. Halaber, ordezkariak aukeratzeko prozesuan hautagai modura parte hartzeko nahia agertuko da, baita data eta sinadura ere.

#### **6. artikulua. Bozketa**

- 1.- Bozketa ikasturteko hirugarren eskola-astean egingo da.
- 2.- Bozketa-eguna iritsitakoan, hauteskunde-mahaia eratuko da honako pertsona hauek osatuta: mailako koordinatzailea (edo, hura ez badago, titulazioko koordinatzailea), irakasgaiari irakasle arduraduna eta matrikulatutako ikasleen alfabetoaren araberrako zerrendako lehenengo pertsona (ikasgelan ez balego, zerrendan behera egingo litzateke, ikasgelan den lehenengo ikaslea aurkitu arte). Ezingo dira ikastalde bateko

hauteskunde-mahaiko kide izan talde horren ordezkari izateko hautagaitza aurkeztu duten ikasleak.

3.- 15 minutu izango ditu hautagai bakoitzak bere programa edo ideiak azaltzeko. Bi hautagai baino gehiago baleude, denbora hori 10 minutura murriztuko litzateke.

4.- Hautagaitza bakarra balego, mahaikideek bertaratutakoei galdetuko diete eragozpenik ba ote duten, bozketarik egin gabe, hautagai bakarra zuzenean taldeko ordezkari hautatua izan dadin. Inolako eragozpenik ez bada, taldeko ordezkari izendatuko da; horrela geldituko da jasota aktan, eta hauteskunde-prozesua amaituko da. Eragozpenen bat bada, bozketara jo beharko da.

5.- Mahaiak botoa emateko deia egingo die, zerrendaren ordenari jarraiki, erroldan ageri diren ikasleei, eta honako agiri hauetakoren baten bidez identifikatu beharko ditu: UPV/EHUko ikasle-txartela, NANA, pasaporte edo gidabaimena.

6.- Boto-txarteletan hautagai bakar baten izen-abizenak soilik idatziko dira. Baliogabetzat joko dira hautagai baten baino gehiagoren izenak daramatzaten boto-txartelak. Baliogabeak izango dira, halaber, hautagai baten izena adierazten ez duten hitz edo ikurrak daramatzaten txartelak, edo irakurtezinak direnak.

## **7. artikulua. Boto-zenbaketa eta emaitzen jakinarazpena**

1.- Hauteskunde-mahaiak botoak jendearen aurrean zenbatuko ditu.

2.- Mailako koordinatzaileak (edo, hura ez badago, titulazioko koordinatzaileak) akta egingo du, azken emaitza eta hautaketan gertatutako edozein gorabehera bertan jasota. Hiru mahaikideek sinatuko dute akta. Taldeko ordezkari izendatuko da boto gehien lortu dituen hautagaia.

3.- Akta Dekanotzara eramango da.

4.- Fakultateko Idazkaritzak egiaztatuko du ordezkarien egoera akademiko eta administratiboa zuzena dela.

## **8. artikulua. Inpugnazioak**

1.- Erreklamazioa ezarri ahal izango da Dekanotzaren aurrean bozketa egin eta hiru egun balioduneko epean. Erreklamaziorik ezean, behin betiko izendatuko dira hautaturiko ordezkariak.

2.- Inpugnazioak aurkeztu eta bi egun balioduneko epean ebatziko dira.



## **9. artikulua. Kredituak onartzea**

Ikasleen ordezkari izateagatik kredituak aitortzeko dagoen aukera "UPV/EHUko graduiko ikasketetan kredituak transferitu eta onartzeko arautegia"n (EHAA 12/06/19) dago jasota; izan ere, arautegiaren 11. artikulua eta I eranskinaren arabera, UPV/EHU matrikulatutako ikasleek unibertsitateko kultur eta kirol-ekintzetan, elkartasuneko eta lankidetzako jardueretan eta ikasleen ordezkaritzan aritzeagatik kredituak aitortzea eskatu ahal izango dute, eta gehienez ere ikasketa-planeko 6 kreditu eskatu ahal izango dituzte horien truke. Taldeko ordezkari izateagatik kreditu bat lor daiteke ikasturte oso bakoitzeko, eta, horretarako, txosten bat aurkeztu beharko da Dekanotzan ikasturtearen bukaeran, zeinean egindako jardueren berri emango baita.